



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**Temporada 2023/24**

## **8. ZIRKULARRA**

### **2023-2024 DENBORALDIKO BALOI OFIZIALA ARETO FUTBOLEKO HIRUGARREN, EUSKAL LIGA ETA EUSKAL KOPAN**

Zirkular honen bidez aditzera ematen da baloi eredu jakin bat erabili behar dela lehiaketa horietako partidetan. Helburua lehiaketa garatzeko erabiltzen diren elementu teknikoak bateratzea da, eta, kasu honetan, talde guztiek baloi eredu bera erabiltzea.

Egoera hori errazteko asmoz, EFF-FVFK erabaki zuen baloi uniformearen eredu bat ezartzea egokia zela, edozein kirol eta esparrutako ia federazio-lehiaketa guztietan dagoen bezala.

EFF-FVFK ERREA markako HURAN HYBRID izeneko eredu ofizialeko doako 5 baloi emango dizkio lehiaketa hauetan parte hartzen duen talde bakoitzari:

- Hirugarren Maila.
- Euskal Liga.
- Euskal Kopa. (Taldeak Euskal Ligan edo Hirugarren mailan parte hartzen ez badu).

EFF-FVFK, ERREArekin egindako negoziazioan, HURAN HYBRID baloiaren prezioa adostu da (18,80 €, BEZA barne). Federazioari eta baloi gehiago erosi nahi dituzten klub guztiei aplikatu dakiekeen prezioa da, bai entrenamenduetarako, bai partidetakarako, eta, behar izanez gero, galdu edo hondatu egin delako. Baloiak klub bakoitzak nahi duen hornitzailean erosi ahal izango dira, baina EFF-FVFK baloiak errazago eskuratzeko eta ERREArekin (Basque Team 2020) adostutako prezioan eskaerak egiteko aukera eman du [errea.sport@gmail.com](mailto:errea.sport@gmail.com) helbidean, baita baloiak adierazitako helbidera bidaltzeko ere.

Bilbon, 2023ko uztailak 27ean

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General